

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL**AZPEITIKO UDALA***Iragarkia*

Azpeitiko Udabatzak 2017ko ekainaren 6an egindako bilkuran, goi-mendia, abentura, zientzia, esplorazioa eta dibulgazioarekin zerikusia duten proiektuak bultzatzeko 2017 Joxe Takolo Beka egitasmoa osatzen duen dirulaguntza emateko oinarri arautzaileei onarpena ematea onartu zuen (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2017ko ekainaren 14an, 113. zk).

Arauk eskatzen duen jendaurreko argibide epea inolako murtzilorik eta oharpenik izan gabe igaro denez, bere edukia argitaratuko da, eta jakinarazi 2017ko deialdia ere barneratuta dagoea.

Goi-mendia, abentura, zientzia, esplorazioa eta dibulgazioarekin zerikusia duten proiektuak bultzatzeko 2017 Joxe Takolo Beka egitasmoa osatzen duen dirulaguntza emateko Oinarriak.

1. Helburua.

Oinarri hauen helburua da Beka bat ematea, goi-mendia, abentura, zientzia, esplorazioa eta dibulgazioarekin lotuta dauden proiektu originalak, esploratzaileak eta dibulgatiboak bultzatzeko.

2. Onuradunak.

Beka hau eskuratzeko aukera izango dute, deialdiaren urtean oinarri hauen helburuarekin bat datorren ekimenen bat antolatzen duten Euskal Herriko mendizale, mendi-elkarte eta beste hainbat eratako elkarte eta taldeek.

Partaideak mendiko profesionalak izanez gero, proiektuak ezingo du partaideen jarduera profesionalarekin zerikusia izan.

3. Eskarien aurkezpena.

Eskari-istantziak, Eranskinean datorren eredu normalizatuaren arabera, Azpeitiko Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko dira, irailaren 30orarte behar bezala beteak, eta ondoren zehaztutako agiriekin batera:

1.— Diruz laguntzea eskatu den proiektu edo jardueraren ardura duen ordezkari edo pertsonak eskari-istantzia ofizialaren atal guztiak bete beharko ditu, eta horri Nortasun Agiriaren fotokopia erantsi eta proiektuan partaide izango direnen federazioko baimena.

2.— Egin nahi den proiektuaren Oroitidazkia, hari dagokion aurrekontuarekin batera, bai paperean baita euskarri informatikoan ere.

4. Azterketa eta beka ematea.

Batzorde Tekniko bat osatuko da erakundeen eta gai horretan adituak diren kideez osatua, eta hau izango da aurkeztutako proiektuen artean Beka emateko ebaluazioa egingo duena.

Horretarako, Batzorde Teknikoak, zeinak proiektu bat baino gehiago proposatu dezaken, honako irizpideak izango ditu kontuan:

- Egin nahi den jardueraren kalitatea.
- Entitateak bere jarduera-eremuan agertu duen ibilbidea, jarraipena eta egonkortasuna.

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno de Azpeitia en sesión celebrada el día 6 de junio de 2017 acordó aprobar las bases reguladoras para la concesión de la ayuda económica que integra el programa 2017 Beca Joxe Takolo, para impulsar la actividad de alpinismo, aventura, ciencia, exploración y divulgación (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de 14 de junio de 2017 n.º113).

Transcurrido el plazo de información pública reglamentaria sin que se haya presentado reclamación ni observación alguna, se procede a la publicación de su contenido que integrará, asimismo, la convocatoria de 2017.

Bases para la concesión de la ayuda económica que integra el programa 2017 Beca Joxe Takolo, para impulsar la actividad de alpinismo, aventura, ciencia, exploración y divulgación.

1. Objeto.

Es objeto de las presentes bases, el otorgamiento de una Beca destinada a impulsar proyectos originales, exploradores y divulgativos que estén vinculados al alpinismo, aventura, ciencia, exploración y divulgación.

2. Beneficiarios.

Podrán optar a la Beca, los montañeros, clubes de montaña, y otro tipo de grupos y Asociaciones de Euskal Herria que, organicen dentro del año de la convocatoria, alguna actividad que coincida con el objeto de las presentes bases.

Si los participantes son profesionales de la montaña, el proyecto presentado no deberá tener ninguna relación con su ámbito profesional.

3. Presentación de instancias.

La instancia de solicitud, según modelo normalizado que se adjunta en el Anexo, deberá ser presentada, debidamente cumplimentada, en el registro del Ayuntamiento de Azpeitia hasta el 30 de septiembre y acompañando a la misma la documentación siguiente:

1.— El representante o persona responsable del proyecto o actividad, para el que se solicita la subvención rellenará todos los apartados de la mencionada instancia oficial de solicitud, acompañando fotocopia del D.N.I. y fotocopia de la licencia federativa de los componentes del proyecto.

2.— Memoria explicativa del proyecto a desarrollar, acompañado del correspondiente presupuesto, tanto en papel como en soporte informático.

4. Evaluación y concesión.

La Comisión Técnica, compuesta por representantes institucionales y especialistas en la materia será la encargada de la evaluación de la Beca entre los distintos proyectos presentados.

Para tal fin, la Comisión Técnica, que podrá proponer más de un proyecto, tendrá en cuenta los siguientes criterios de concesión:

- La calidad de la actividad a realizar.
- La trayectoria, continuidad y estabilidad demostrada por la Entidad en el ámbito en el que se desarrolla su acción.

- Partaide-kopurua eta jardueraren iraupena eta zabalkundea.
- Jardueraren finantziazioa.
- Jarduera antolatzeko azpiegitura eta giza-baliabideak.
- Kirol eta gizarte-mailan jarduera horrek duen interesa.
- Antzeko kirol programa edo eskaintzarik ez egotea.
- Jarduera hori kualifikatutako pertsonal teknikoak garatzea.

Aurkeztutako proposamenak ireki aurretik, goian aipatutako irizpideak objektiboki baloratuko dira.

Erabaki-proposamena horretarako es-kuduntza duen organoari bidali ondoren, honek onartutako Beka esleituko du. Erabaki hori urrian emango da.

5. *Dirulaguntza ordain-tzea.*

Emandako beka hori ekitaldiko azaroaren lehen hamabostaldian ordainduko da oso-osorik, jendeaurreko ekitaldi batean.

6. *Irabazlearen betebeharrak.*

Beka irabazi duenak bete beharrekoak izango dira:

– Dirulaguntza jaso duen jardueraren informazio, publizitate eta jardueran JOXE TAKOLO BEKAREN laguntza adierazi (Azpeitiko Udalak horri buruz ematen dituen jarraibideen arabera).

– Ekimenak diharduen bitartean, erakundeetako ordezkariak erabakitako moduan eta, ekimena bukatu ondoren, antolatutako proiektzio-sarearen bitartez burututako esperientzia zabaltzen lagundu.

7. *Aurrekontua.*

Oinarri hauen bidez araututako beka emateko izendatua dagoen kreditua 3.000,00 eurokoa da, Euskal Herriko Mendi Federazioak, Azpeitiko Udala eta Lagun-Onak Mendi Bazkuna klubak finantzatuta.

Diru-kopuru hau urtero aldatu ahal izango da, beste ekarpen batzuekin edota, bategokio, aipatutako Erakunde horien ekarpenak handituta.

8. *Ez betetzea.*

Proiektua ez egitea edota araudi honetan adierazi diren laguntzak emateko erabakiorrak diren baldintzak ez balira beteko, dirulaguntza kendu egingo da eta jaso den diru-kopuru guztia itzuli egin beharko da.

9. *Interpretazioa.*

Udalak bere organo eskudunaren bidez erabakiko du Joxe Takolo Beka honen interpretazio, aplikazio eta ondorioen gainean sor daitekeen zalantza oro.

Aurkeztutako proiektuak kalitatezkoak ez balira edo eskaerak egon ezean, Batzorde Teknikoak Joxe Takolo bekaren deialdia hutsik geratu ahal izatea proposatu ahal izango du. Kasu horretan ezarritako diru kopurua Bekarekin zerikusia duten alderdiak indartzeko erabiliko da.

Azpeitia, 2017ko abuztuaren 3a.—Eneko Etxeberria Bereziartua, alkatea. (5785)

– Número de participantes, duración y difusión de la actividad.

– Financiación de la actividad.

– Infraestructura y recursos humanos para la organización de la actividad.

– El interés deportivo y social de la actividad.

– Inexistencia de ofertas o programas deportivos similares.

– Desarrollo de la actividad por personal técnico cualificado.

Previamente a la apertura de las propuestas presentadas, se valorarán de manera objetiva los criterios arriba indicados.

Una vez remitida propuesta de resolución al órgano competente, este adjudicará la Beca aprobada. Dicha resolución se llevará a cabo en el mes de octubre.

5. *Abono de la subvención.*

La beca concedida será abonada en su totalidad a lo largo de la primera quincena de noviembre, en acto público.

6. *Obligaciones del receptor.*

Serán obligaciones del receptor de la Beca.

– Hacer constar en toda la actividad, información, publicidad y propaganda relativas a las actividades subvencionadas, la colaboración de la Beca Joxe Takolo (de acuerdo a las instrucciones que dicte al respecto el Ayuntamiento de Azpeitia).

– Contribuir a la difusión de la experiencia tanto durante el desarrollo de la actividad, a través de la colaboración que los representantes institucionales estimen oportuna, como al finalizar la misma a través de la red de proyecciones que se establezca.

7. *Presupuesto.*

El crédito consignado para el otorgamiento de la Beca regulada en las presentes bases asciende a 3.000,00 euros, financiados por la Federación Vasca de Montaña, Ayuntamiento de Azpeitia y club de montaña Lagun-Onak.

Esta cantidad podrá ser modificada anualmente en base a otras aportaciones o en su caso, al incremento de las aportaciones de las citadas instituciones.

8. *Incumplimiento.*

La no realización del proyecto o en su caso el incumplimiento de las condiciones determinantes de la concesión de las ayudas a que se hace referencia en la presente normativa, conllevará a la retirada de la subvención con devolución de todas las cantidades percibidas.

9. *Interpretación.*

El Ayuntamiento a través de su órgano competente resolverá cualquier duda que pueda surgir sobre la interpretación, aplicación y efecto de esta Beca Joxe Takolo.

Si los proyectos presentados carecieran de la calidad suficiente, o no se presentara proyecto alguno, la Comisión Técnica podrá proponer que la convocatoria de beca Joxe Takolo quede desierta. En ese caso, la cantidad prevista se utilizará para reforzar aspectos relativos a la Beca.

Azpeitia, a 3 de agosto de 2017.—El alcalde, Eneko Etxeberria Bereziartua. (5785)

I. ERANSKINA / ANEXO-I
AZPEITIKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA
JOXE TAKOLO BEKA - [2017 urtekoa](#) / BEKA JOXE TAKOLO - [Año 2017](#)

Sarrera Erregistroa / Registro de
Entrada

<p>BEHEAN SINATZEN DUENAK Azpeitiko Udaleko Alkate-Udalburu jaunari eskaria egiten dio, modu honetan:</p>	<p><i>EL QUE SUSCRIBE formula instancia al Ilmo. Sr. Alcalde-Presidente del Excmo. Ayuntamiento de Azpeitia, en los términos siguientes:</i></p>
--	--

ENTITATEAREN DATUAK / DATOS ENTIDAD **:1:

<p>ENTITATE ESKATZAILEA / ENTIDAD SOLICITANTE:</p>			
<p>ENTITATEAREN HELBIDEA / DOMICILIO SOCIAL:</p>			
<p>IFK-IFZ / CIF-NIF</p>	<p>HERRIA / POBLACIÓN</p>	<p>TELEFONOA / TELÉFONO</p>	<p>E-MAILA / CORREO ELECTRONICO</p>

AGIRIA AURKEZTEN DUENA / PRESENTADOR DEL DOCUMENTO:

<p>IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS</p>		<p>N.A.N. / D.N.I.</p>	
<p>HELBIDEA / DOMICILIO</p>			
<p>K.KORRENTEA/ Nº C.CORRIENTE TITULARRA/TITULAR</p>			
<p>HERRIA / POBLACIÓN</p>	<p>P.K. / C.P.</p>	<p>PROBINTZIA/PROVINC.</p>	<p>TELEFONOA/TELÉFONO</p>

1** Beka pertsona fisiko batek eskatuko balu nahikoa da 2. koadrotxoa (“**agiria aurkezten duena**” izenburua duena) betetzearekin.

En caso de que la beca sea solicitada por una persona física bastará con rellenar la casilla 2 con el encabezamiento “**presentador del documento**”.

AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN IZENA / DENOMINACIÓN DEL PROYECTO PRESENTADO

AURKEZTU DITUEN AGIRIAK / DOCUMENTACIÓN QUE SE APORTA:

- PROIEKTU KIDEEEN NORTASUN AGIRIAREN FOTOKOPIA**
FOTOCOPIA DEL D.N.I. DE TODOS LOS MIEMBROS DEL PROYECTO
- ENTITATEAREN IFK-IFZ-ren FOTOKOPIA**
FOTOKOPIA CIF/NIF DE LA ENTIDAD
- PROIEKTUAREN PLANA**
PROYECTO A DESARROLLAR
- FEDERATU TXARTELAREN KOPIA**
COPIA DE LICENCIA FEDERATIVA DE TODOS LOS MIEMBROS DEL PROYECTO.
- ONURADUN IZATEKO ADIERAZPEN EREDUA ETA BAIMENAK/**
DOCUMENTO DE DECLARACIÓN RESPONSABLE Y DOCUMENTO DE AUTORIZACIONES.

Behean sinatzen duenak JOXE TAKOLO BEKArA aurkeztu nahi du eta agertutako datuak egiazkoak direla aitortzen du.

El abajo firmante desea optar a la BECA JOXE TAKOLO, declarando ser ciertos todos los datos consignados.

ESKATZAILEA / SOLICITANTE

AZPEITIA,.....

.....